

Barnetasuna



Barnetasuna

Nortasuna eraiki eta garapen osora iristeko bidea zabaltzen du barnetasunaren lanketak.

Pentsamenduaren eraikitzea



Pentsamenduaren eraikitzea

Pentsamendua hezi behar da norberaren bizipenei zentzu betea emateko.

Jokabide eta jarduera autorregulatua



Jokabide eta jarduera autorregulatua

Autonomiaz ikasteko ohiturak hartzean, ikastea bizipen bakarra eta berezia da norberarentzat.

Adimena, gorputza, mugimendua



Adimena, gorputza, mugimendua

Betiko ikasgelen formatua aldatzean, sormena, ikaskuntza eta garapen kognitiboa bultzatzen dira.

Ikaskuntzaren dimentsio soziala



Ikaskuntzaren dimentsio soziala

Aberasgarri zaigu pertsonak errespetatzea eta jarduera sozial eta kulturaletan parte hartzea.



Ikaskuntza Testuinguru Berria La Salle

Bizi ezazu!

La Salle ikastetxeen erreferentzia markoa da eta ikaskuntzaren oinarrian jartzen ditu konpetentziak, esperientziak, ikaskuntza zeharkakoa eta instrumentala, izaera soziala eta adaptazioa; betiere, ikastetxe bakoitzaren testuingurura moldatuta.



La Salle

lasalleikastetxeak.org



La Salle

Hezkuntza eraldatuz, mundua eraldatzen dugu.

ITB printzipio pedagogikoak
Haur Hezkuntza



Printzipio pedagogikoak



La Salle ikastetxeek abian dute Ikaskuntza Testuinguru Berria (ITB).

Testuinguru berriak gure eskolaren eraldaketa pedagogikoa dakarkigu, ikasteko prozesua beste eredu batean oinarritzeko, eta printzipio pedagogiko sendoetatik abiatuta, bizi dugun errealitatea eraldatu eta gure etorkizuna eraikitzeko.

Printzipio pedagogikoak ditugu gidari, gure proiektuaren oinarri eta adierazgarri. Kalitatea eta balioa dakarkiotu gure egitasmo hezitzaileari, haien gainean eraikia baita. Printzipio pedagogikoak dira, finean, Ikaskuntza Testuinguru Berriaren (ITB) muina, egungo gizarteak egiten dizkigun eskakizun berriei emandako erantzun bateratua.

Barnetasuna

La Salle ikastetxeek behar dutena ematen diote pertsona bakoitzari, pertsona guztien ezaugarriak eta denborak errespetatuta, hori baitu eskolak aberasgarri, aniztasunaren eta jokabide inklusiboaren iturburu. Batera hazi eta hezi nahi ditugu pertsonen nortasuna eta espiritualtasuna.



Pentsamenduaren eraikitzea

La Salle ikastetxeetan pentsamendua hezi daitekeela uste dugu eta, pentsamendua behar bezala eraikiz gero, pertsonak aldaketaren eragile izango direla, protagonistak etorkizuneko gizartearen eraikuntzan.

Jokabide eta jarduera autorregulatua

Erabakimen autonomoa sustatzen dute La Salle ikastetxeek; izan ere, emozioak, pentsamenduak eta jokabideak autonomiaz kontrolatzen ikasteko lekua dugu eskola, bizi ditugun egoera guztietara moldatu eta autoikaskuntzarako aukerak sortzeko.



Adimena, gorputza, mugimendua

Adimenaren eta mugimenduaren arteko harreman estuaren jakitun, La Salle ikastetxeek ariketa fisikoak barneratzen dute, zuzenean nahiz zeharka, eguneroko jardueran, munduan gertatzen denarekiko kontzientzia aktiboa izan eta errealitatearen bestelako irakurketak sustatzeko.

Ikaskuntzaren dimentsio soziala

La Salle ikastetxeetako ikasgelak gune sozialak dira eta, parte-hartzea, kooperazioa, solidaritatea, justizia eta balio demokratikoak bultzatzeaz gainera, pertsonen garapen osoa lortu nahi dute, norberaren barnetasunari, izaera sozialari eta ezaugarri kulturelei erreparatuta.

